



# URUMEAKO Kronika

2016/07/27



 PDF

**ASTIGARRAGA** *Uztailak 27*



 PDF

**HERNANI** *Uztailak 27*



[albisteak](#)//GOLDEA ELKARTEA

**«Disfrutatu Santioetaz. festa naturalak. sanoak**

# eta errespetuzkoak izan daitezela»

*Festa sortzaileak dira Goldea elkarteko kideak eta atzo, sortzeaz gain, festak abiarazteko ohorea ere izan zuten.*

*25 urte bete dituzte aurten, baserria, herri kirolak, sagarra eta **sagardo**aren mundua bultzatzen. 25 urte hauetan 250 ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte, eta itxaferoa botatzearena, egindako lanaren errekonozimendu gisa bizi dute. Kronika Arka eta Lizeagarekin elkartu da, festetaz hitz egin eta historia pixka bat jakiteko gogoz.*

## ASTIGARRAGA

2016/07/23 00:00 Larunbata

### **Santioei hasiera eman zien txupinazoa bota zenuten atzo. Sorpresa izan al zen notizia?**

Puntu batean bai; 25 urteurrena zela eta, zerbait berezia egiteko asmoa genuen, eta orain 2-3 hilabete Alkatearekin elkartu ginen, Udalak ere aurreikusi zezan hori. Beste bilera bat ere egin genuen ondorenean, eta bertan aipatu ziguten itxafero botatzearen aukera. Urteurrena duten elkarte gehiago badira aurten herrian, baina beraiek aurretik botea dute itxaferoa, eta azkenean gu izan ginen aukeratuak. Ilusio haundia egin zigula esan beharra dugu.

### **25 urte hauetan egindako lanaren errekonozimendu gisa hartu duzue?**

Bai, baina zentzu horretan ez dugu kexatzeko asmorik; herriaren eta instituzioen errekonozimendua sentitu izan dugu, batez ere azken urteetan. Egia esan, pozgarria da herritarrei ematea itxaferoa botatzeko aukera; azken finean, gu herritarrak baikara, herriarentzako elkarte bat sortu genuen, mugimendu bat: baina herritar xumeak gara. Entrega, aportazioa, dedikazioa eta ideia berriak garatzen saiatzeko gara, eta hori eskertu egiten digute.

### **Pregoa irakurri zenutenean, nabari zitzaizuen emozio puntu hori.**

Hala da. Elkartean sei partaide gara, modu iraunkor batean-edo, jarraitzen dugunak; eta atzetik badatoz gazteak. Pregoiak aukera eman zigun eskerrak emateko. Herritarrei ondo pasatzeko eskatu genien, ez daudenak gogoan izanda. Festa naturalak, sanoak eta zentzu guztietan errespetuzkoak izatea ere eskatu genien.

### **Imajinatzen dut, Santa Ana eguna izango dela zuentzat egun bereziena ezta?**

Noski, guretzat eta astigartar askorentzat. Barrutik eta kanpotik bizitzen dugu, guk antolatzen baititugu egun horretako hainbat ekitaldi. Festagileak gara, festetako parte aktibo izan gara eta asko antolatu ditugu, 250 ekitaldi, besteak beste, 25 urte hauetan.

### **Zifra borobila da hori! Ekitaldi horiek dira egindako lanaren adierazle. Zein helbururekin sortu zenuten Goldea elkarte?**

San Isidro eguneko jaia, lehen, Donostiako Kamerak antolatzen zuen, eta urte batean, antolatzeari utzi zion. Falta hori sumatzen genuen eta herritar talde batek Udalera jo genuen, orduko alkatearekin hitz egiteko asmoz; Antton Arka zen orduan alkatea eta bat egin zuen gure asmoekin; hala, jaia errekuperatu genuen, eta hor hasi zen ibilbidea.

### **Hiru dira orduan orain, Goldearen ildo nagusiak.**

Urtean hiru ekimen nagusiren bueltan mugitzen gara: San Isidro, baserriarekin lotura zuzena duena; Santa Ana, herri kirolekin lotzen dena; eta sagarra eta **sagardoa**, irailetik aurrera lantzen duguna.

## **Banaka aztertuta, baserria babestu eta sustatzea izan da 25 urte hauetan erronketako bat. Lortu al duzue?**

Saiatzen gara behintzat. Historia pixka bat eginez, 1983 urtean 135 baserri zeuden Astigarragan, eta 80 inguru ziren bertatik bizi zirenak: ganadua, baratzak... Eboluzioa ikusiko bagenu, beherakada haundia izan da, nabarmena. 2008 urtean Astigarragako baserrien egoera sozioekonomikoa ikertzeko eskatu genion Udalari. Baserria zazpi arlotan ikertzea eskatzen zuen prozesuak, eta Udalak 2014an heldu zion. Gaur egun Astigarragan ez dira dozena bat baserri izango bertatik bizi direnak. Ikerketa honek, datuez gain, zerbait ona ere ekarri du: Baserriaren Mahaia sortzea. Baserrietako ordezkariak, herriko elkarteak, Udaleko ordezkariak eta Behemendik osatzen dute mahai hori eta ari da bidea egiten.

## **San Isidro eguna berreskuratu izanaren garrantzia aipatu duzue lehen. Honek ere izango zuen eragina baserria sustatzeko prozesu horretan, ezta?**

Hala da. San Isidro eguna folklore kutsua hartzen ari zen, eta guk hortik urrundu nahi genuen. San Isidro eguna baserritarrei merezi duten errekonozimendua emateko eguna izan behar da, hauen defentsa eta babeserako eguna. Goldeak 25 urtetan 50 baserritar omendu ditu. Jende xumea da, eman-korra da, bertako hizkuntza eta kultura bizirik mantentzen dituen. Goldearentzat urrea dira gizon eta emakume baserritarrak; azken hauek askotan ahaztuak izan baitira, eta beraien lana ezinbestekoa izan da baserriaren mundua aurrera ateratzeko.

San Isidro egunarekin lortu dugu baserria eta bertan egiten dena herrira ekartzea, ikusgarri jartzea. Herri kirolen bitartez plazaratu izan da hori; eta baita bertan egiten diren lanak irudikatuta ere: basogintza, behiak jaiztea, baratza... Prozesu horiek herriak naturaltasunez bizitzea bilatzen da, baserria herrira ekartzen da, eta herritarra baserrira gerturatzen da.

## **Sagarra eta **sagardoa**ren jarduera soziokulturala ere bultzatzen duzue.**

Sagarra eta **sagardoa**ren kasua ezberdina da, izan ere badaude elkarteak honen babes eta zabalkunderako lanean ari direnak. Goldea elkarteak saiatzen da sagardogintzako lana plazaratzen. Astigarragan esaterako, 10.000 litroko kupela egin zen Plazan, hasi eta bukatu; Asturiasetik etorri zen Jose Manuel Sanchezen laguntza izan genuen horretarako. Joan den urtean burdingintzako tresnak egin ziren eskuz Plazan baita ere. **Sagardoa** botelaratuta izan dugu baita ere... Esan bezala, sagardotegian egiten diren lanak erakutsi nahi izaten ditugu...

## **Herri kirolen antolaketa ere bada, Golderaren indargune bat.**

Elkarteak sortu genuenean apustu batzuk egiten ziren, herri kirol erakustaldi batzuen bueltan. Horri bultzada bat eman nahi izan diogu, eta eskualdean saio ezberdinak antolatu izan ditugu. Herri kirolak, erakustaldiak baino gehiago, baserriarekin lotura duten ekintzak izatea bilatzen dugu. Eta hor daude esaterako, idi demak: 3.298 kiloko harria San Isidro egunean mugitu izan da urtero Astigarragan.

Bestetik, poza ematen du herri kirolen bueltan gazteak mugitzen direla ikusteak. Giza proba bat ere egin genuen, eta 22 gazteren artean mugitu zuten harri haundia; 18 plaza egin zituzten 20 minututan... Orain herri kirol eskola sortu nahian gabiltza.

## **Gazteak aipatu dituzue galdera bat baino gehiagotan. Etorkizun oparoa al du Goldeak?**

Hogei bat gazte edo baditugu inguruan, eta testigoa behar den bezala pasa behar dela uste dugun horietakoak gara. Pertsona guztiek dugu etapa bat eta hori bukatu egiten dela jakin behar da. Testigoa ordea, ezin da urte batetik bestera pasa. Gazteekin prozesu bat eramane behar da, lagundu egin behar zaie. Gurekin hasi, eta pixkanaka, modu naturalean, erreleboa hartu. Talde lanaren garrantzia azpimarratu nahiko genuke, beraiek parte sentitu behar dute, eta ez behartuta. Azken ekitaldietan gurekin izan dira, eta ari gara bilerak egiten. Prozesua pixkanaka egin behar da.

## **«Herri kirol eskola sortu nahian gabiltza, herriko gazteek probatzeko aukera izan dezaten»**

### **Herri kirolen munduan harrobia sortu nahi dute Astigarragan.**

Elkarrizketan aipatu bezala, herri kirolen antolaketa da Goldea elkartearen funtzio nagusietako bat. Ikuskizunetik haratago, kirol hauek duten esanahia transmititzea da elkartearen helburua; eta noski, etorkizuna ziurtatzea. Bide horretatik, herri kirol eskola sortu nahian dabiltza Astigarragan: «esparru bat izatea nahi dugu, gazteek herri kirol ezberdinak probatzeko materiala bertan izateko. Beraiek probatzea da gure nahia, eta handik aurrera, bidea egin nahi badute, aukera izatea. Kirol ezberdinak probatzeko aukera izango dute bertan, eta gustatzen zaien hori lantzekoa ere bai. Helburua da, nahi duenak Federazioko Txapelketetan parte hartzeko aukera izatea. Eta era berean, hala nahi duenak, herri mailan parte hartzea; edo soilik, praktikatzeko aukera izatea. Herri kirolen munduan harrobia sortu nahi dugu».

## **700 kizki lagun baietz, irailean!**

### **Eskualdeko erronka izango da Plazan, irailaren 25ean.**

Santioetako jaiei hasiera eman zien suziria lehertuta, mural bat zabaldu zuten atzo Goldeako kideek. Atzo eman zuten datorren erronkaren berri: 700 kizki lagun baietz! Sagarra eta **sagardoak** eskualdean duen indarra aipatu zuten, eta oraingo honetan zazpi herriren artean antolatuko dutela azaldu zuten.

Datozen asteetan izango da informazio gehiago, garrantzitsuena ordea, jakinarazi zuten: erronka irailaren 25ean izango da Astigarragako plazan.



Izena\*

Eposta helbidea\*

Iruzkina\*

Captcha\*



reCAPTCHA erroka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzailerak](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



 PDF

**ASTIGARRAGA**

Uztailak 27



 PDF

**HERNANI**

Uztailak 27

## Puri-Purian

*Lau puntuko plenoa ... (1)*

---

*Furgoneta batek istripua, ... (1)*

---

*Animaliak, San Joanak ... (1)*

---

*«Harrapatzen bazaitu...» (2)*

---

*Sagastialdeko BOEetan izena ... (1)*

---

*«Lotsa sentitzen dugu, ... (1)*

---



GEHIGARRI BEREZIA

 PDF

## Gida komertziala

Q Komertzio bat bilatu

Bilatu



### Arriatzu

Gindilla garaia ere hemen da!

## Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefonoa: 616886660**

*Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**

Tweets por @KronikaNet

**Gaur**



22°

18°

**Bihar**



23°

17°

**Etzi**



24°

18°

[Aemet](#) eskaintako datuak

**Azken argazkiak**



Santio Jaiak 2016 - Sa...



Santio Jaiak 2016 - Sa...



Santio Jaiak 2016 - Sa...



Santio Jaiak 2016 - Ig...



Santio Jaiak 2016 - Ju...



Santio Jaiak 2016 - La...

## Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)

[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus)

[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus)



LAGUNTAILEAK



**DOBERA  
KRONIKA  
BAZKIDEAK**

Legezko oharra